

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

Kirolak

Uda kanpaina 2023. Kirol begiraleak aldi-baterako kontratatzeko oinarri arautzaileak.

1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen xedea da kirol begiraleen aldi baterako kontratazio laboralak arautzea, Oñatiko Udalak antolatu duen «Uda Kanpaina 2023» deialdia dela-eta. Horrela bada, Udalak ondoren azaltzen diren kirol zerbitzuetan lana egiteko kontratazioak egitea aurreikusten du (izen-emate kopuruagatik baldintzatuta):

1.a. Kirol zerbitzu orokorrak: mini-tenisa, tenisa, squash, badminton, eskupilota, erraketa kirolak, paleta, jolasak, kirol anitza eta mendiko bizikleta (MBT).

1.b. Kirol zerbitzu espezifikoak: eskalada indoor eta patinajea.

Lan kontratuaren iraupena ekainaren 22tik uztailaren 21era bitartean izango da; eta, lanaldia, Udalak ezartzen duen zerbitzuaren beharren arabera.

Kontratuak egiterakoan interesatuen jardun-denbora aintzat hartuko da. Horrela bada, horren gaineko xehetasunak izen-emate orrian zehaztu beharko dira.

Halaber, hautatuak diren lagunak ekainaren 22tik 23ra (10:00-12:00) zerbitzuaren antolaketarako eta uztailaren 22an zerbitzuaren ebaluazioa (11:00etan kiroldegian) egiteko, Zubikoa Kiroldegian burutuko diren saioetara bertaratzea ezinbestekoa izango da. Bestalde, eta zerbitzuen garapen egoki baterako Oñatiko Udalak horrela erabakiko balu, zerbitzuak antolatzeko saio gehiago egingo dira.

Azken egunean, gainera, itxiera bilera bat egingo da uda kanpainaren balorazioa egiteko.

Ondoren zehazten diren kiroletan arituko diren begiraleek, formakuntza saioa egingo dute Uda Kanpainari hasiera eman aurretik:

- Tenis.
- Mini-tenis.
- Patinajea.
- Eskalada.
- Pilota.
- BTT.
- Naturaisia.

Formakuntza saioen iraupena 2 ordukoa izango da, eta ekainaren 22tik 23ra bitartean egingo dira Zubikoa Kiroldegian, goizeko 10:00etan. Saio horietan parte-hartzea derrigorrezkoa da.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Deportes

Campaña de verano 2023. Bases reguladoras para la contratación temporal de monitores y monitoras deportivas.

1. Objeto de la convocatoria.

El objeto de las presentes bases es la regulación de las contrataciones laborales temporales de monitores y monitoras deportivas con motivo de la convocatoria de la Campaña de Verano 2023 organizada por el Ayuntamiento de Oñati. Así, el Ayuntamiento prevé realizar contrataciones para la realización de trabajos en los siguientes servicios deportivos (condicionados por el número de inscripciones):

1.a. Servicios deportivos generales: mini-tenis, tenis, squash, bádminton, pelota a mano, deportes de raqueta, paleta, juegos, multideporte y bicicleta de montaña (MBT).

1.b. Servicios deportivos específicos: escalada indoor y patinaje.

La duración del contrato de trabajo será del 22 de junio al 21 de julio y la jornada de trabajo en función de las necesidades del servicio que establezca el Ayuntamiento.

En la celebración de los contratos se tendrá en cuenta el tiempo de funcionamiento de las personas interesadas. En este caso, los detalles deberán detallarse en la hoja de inscripción.

Asimismo, para la organización del servicio del 22 al 23 de junio (10:00-12:00) y para la realización de la evaluación del servicio el 22 de julio (11:00 en el polideportivo) será obligatoria la asistencia de las personas seleccionadas a las sesiones que se celebrarán en el Polideportivo Zubikoa. Por otra parte, y si así lo decidiera el Ayuntamiento de Oñati para un adecuado desarrollo de los servicios, se realizarán nuevas sesiones de organización de los mismos.

El último día, además, se celebrará una reunión de clausura para hacer una valoración de la campaña de verano.

Los monitores y monitoras que participen en los siguientes deportes realizarán una sesión formativa previa al inicio de la Campaña de Verano:

- Tenis.
- Mini-tenis.
- Patinaje.
- Escalada.
- Pelota.
- BTT.
- Escuela de bosque.

Las sesiones formativas tendrán una duración de 2 horas y se desarrollarán del 22 al 23 de junio en el Polideportivo Zubikoa a las 10:00 horas. La participación en estas sesiones es obligatoria.

Erreserbako zerrenda baten parte izatera pasako dira kontratatu behar direnak baino lagun gehiago badira. Kontratazioak egiterakoan, uko edo baja egoera baten aurrean erabiliko da zerrenda hori.

Deialdia hutsik geratuko da, baldintzak betetzen dituen hautagai egokirik aurkezten ez den kasuetan, edota taldea osatzeko nahikoa izen-emate izaten ez den kasuetan.

2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bate-gina onartzen duenaren 49.1. d) xedapenari jarraiki, langileak lan kontratua sinatutakoan gero uko egiten badu, 15 egun naturaletako aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio udalari. Oñatiko Udalak ukoak penalizatu ahalko ditu hurrengo urteetako begiraleen hautaketa prozesuetako puntuazioetan; penalizazio hau 5 puntu artekoa izan ahalko da.

2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak.

Onartua izateko eta, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

«Kirol zerbitzu orokorretarako»:

1. Lan-kontratua egiterako egunean 16 urte beteta izatea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez gainditzea.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta ondoren azaltzen diren ikasketen titulazioaren jabe izatea, edota ikasketa horiek egiten egotea.

– IVEF/INEF.

– Irakasle ikasketan gradua (hezkuntza fisikoko espezialitatea).

– TAFYD (Gorputz eta kirol ekintzak sustatzea).

– Kirol begiralea (Kirolaren Euskal Eskola eta federazioetako tituluak, eskainiko diren zerbitzuetan, edo baliokidea).

3. Euskarako B2 mailaren edo horren pareko euskara maila izatea.

4. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaitasunik nahiz muga fisikorik ez izatea.

5. Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erki-degoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzuetik diziplina-espediente bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

6. Haurtzaroa eta adoleszentiaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeko 8. artikulua arabera, sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa izatea (gehenez ere 3 hilabetetako aurretiaz emandakoak onartuko dira).

7. Kontratazio hau beste lan kontratu edo funtzionario izendapen batekin ez da bateragarria izango, kirol begirale lanpostua betetzeko ezarritako lanaldi partzialetik haratago talka egiten duenean.

«Kirol zerbitzu espezifikoen zarako»:

1. Lan-kontratua egiterako egunean 16 urte beteta izatea.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, edo baliokidearen jabe izatea.

3. Eskalada indoor eta patinajea kirol begirale lanetan esperientzia izatea edo/eta formakuntza espezifikoa jaso izana.

4. Euskarako B2 mailaren edo horren pareko euskara maila izatea.

5. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaitasunik nahiz muga fisikorik ez izatea.

Pasarán a formar parte de una lista de reserva si hay más personas de las que hay que contratar. Esta lista se utilizará en el momento de realizar las contrataciones ante una situación de renuncia o baja.

La convocatoria quedará desierta en aquellos casos en los que no se presenten candidaturas idóneas que cumplan los requisitos, o en los que no se produzcan inscripciones suficientes para formar grupo.

El Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, en virtud de la disposición 49.1. d), deberá comunicar al Ayuntamiento con 15 días de antelación la renuncia posterior a la firma del contrato de trabajo. El Ayuntamiento de Oñati podrá penalizar las renunciaciones en las puntuaciones de los procesos de selección de monitoras/es de los próximos años, penalización que podrá ser de hasta 5 puntos.

2. Requisitos para formar parte de la convocatoria.

Para participar en el proceso selectivo se deberán cumplir los siguientes requisitos:

«Para servicios deportivos generales»:

1. Haber cumplido 16 años a la fecha de formalización del contrato de trabajo y no haber superado la edad de jubilación forzosa.

2. Estar en posesión o estar en posesión de la titulación de Educación Secundaria Obligatoria y estudios posteriores.

– IVEF/INEF.

– Grado en Magisterio (especialidad Educación Física).

– TAFYD (Fomento de actividades físico-deportivas).

– Monitor/a deportivo/a (Titulación de la Escuela Vasca del Deporte y Federaciones, en los servicios a prestar, o equivalente).

3. Tener un nivel de euskera igual o equivalente al B2 en euskera.

4. No padecer enfermedad o limitación física que impida el correcto desempeño de las funciones.

5. No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquier Administración Pública o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

6. Conforme al artículo 8 de la Ley 26/2015, de 28 de julio, por la que se modifica el sistema de protección de la infancia y la adolescencia, disponer de un documento negativo del Registro Central de delincuentes sexuales (se admitirán los concedidos con una antelación máxima de 3 meses).

7. Esta contratación será incompatible con otro contrato de trabajo o nombramiento de funcionario/a cuando colisione más allá de la jornada parcial establecida para el desempeño del puesto de monitora o monitor deportivo.

«Para servicios deportivos específicos»:

1. Tener cumplidos 16 años de edad a la fecha de formalización del contrato de trabajo.

2. Educación Secundaria Obligatoria o posesión de equivalente.

3. Escalada indoor y patinaje con experiencia como monitor/a deportivo/a y/o formación específica.

4. Tener un nivel de euskera igual o equivalente al B2 en euskera.

5. No padecer enfermedad o limitación física que impida el correcto desempeño de las funciones.

6. Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espedita bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

7. Haurtzarora eta adoleszentiaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeko 8. artikulua arabera, sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa izatea (gehenez ere 3 hilabetetako aurretiaz emandakoak onartuko dira).

8. Kontratazio hau beste lan kontratu edo funtzionario izendapen batekin ez da bateragarria izango, kirol begirale lanpostua betetzeko ezarritako lanaldi partzialetik haratago talka egiten duenean.

3. Eskabideak aurkeztea.

Epea: 2023ko martxoaren 28tik apirilaren 5era.

Lekua: Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean.

HAZeko ordutegia: 07:30-15:30.

Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Jardunbidearenak, 16.4 artikuluan izendatzen dituen bideetatik ere aurkez daitezke eskaerak. Oñatiko Alkateari zuzenduko zaizkio. Antzeman litezkeen okerrak edozein unetan zuzendu ahal izango dira ofizioz edo interesatuak hala eskatuta.

Oharrak:

– Eskatzaileek eskaera orria beteta eta sinatutakoarekin batera formakuntzaren titulazioak eta ziurtagiriak, eta egindako lanen merezimendu eta titulazio guztiak aurkeztu behar ditu. Aurkezten ez diren titulazio, ziurtagiri edota merezimenduak ez dira kontuan hartuko.

– Formakuntza eta lanen merezimenduak puntuagarriak izateko, aurkezten diren ziurtagiriak, egindako formakuntza edo/eta lan guztien zehetasunak jaso behar dituzte, alegia: formakuntza edo/eta lanen deskribapen zehatza, entitateak, data, eta ordu kopuru zehatza. Halaber, ziurtagiriak entitatearen zuzendaritzak (edo ordezkaria) eginak izan behar dute. datu horiek guztiak, guztienez, egiaztatzen ez badira ziurtagiriak ez dira aintzat hartuko eta ez dira puntuagarriak izango.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

– Eskaera orria beteta (www.oñati.eus web gunean zein Oñatiko Udaleko HAZan eskuragarri egongo da).

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Errege-lamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Oñati Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Nisae elkarreragingarritasun nodoaren bidez, lanpostua eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

- NANA.
- Eskatzen diren titulu ofizialak.
- Hizkuntza eskakizunak, izanez gero.
- Sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa.
- Lan bizitza agiria.

Bestalde, ezinbestez aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengo da:

- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak.
- Prestakuntza ikastaro ez formalen agiriak.
- Titulu propioen agiriak (ez ofizialak).

6. No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquier Administración Pública o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse inhabilitada/o para el ejercicio de funciones públicas.

7. Conforme al artículo 8 de la Ley 26/2015, de 28 de julio, por la que se modifica el sistema de protección de la infancia y la adolescencia, disponer de un documento negativo del Registro Central de delincuentes sexuales (se admitirán los concedidos con una antelación máxima de 3 meses).

8. Esta contratación será incompatible con otro contrato de trabajo o nombramiento de funcionario/a cuando colisione más allá de la jornada parcial establecida para el desempeño del puesto de monitorea o monitor deportivo.

3. Presentación de solicitudes.

Plazo: del 28 de marzo al 5 de abril.

Lugar: en los Servicios Telemáticos del Ayuntamiento de Oñati, en el Servicio de Atención Ciudadana (SAC) o en una Oficina de Correos.

Horario del SAC: 07:30-15:30.

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Se dirigirán a la alcaldesa de Oñati. Los errores que pudieran apreciarse podrán ser subsanados de oficio o a instancia de parte en cualquier momento.

Observaciones:

– Junto con la solicitud y el anexo cumplimentado y firmado por las personas solicitantes, se deberán entregar las titulaciones y certificados de la formación, y todos los merecimientos y titulaciones de los trabajos realizados. No se tendrán en cuenta las titulaciones, certificados o méritos que no se presenten.

– Para que los méritos de las formaciones y trabajos sean puntuables, deberán constar los certificados que se presenten, el detalle de todas las formaciones y/o trabajos realizados: descripción detallada de las mismas, entidad, fecha y número de horas. Asimismo, los certificados deberán haber sido expedidos por la dirección (o representante) de la entidad. todos estos datos, como mínimo, no serán tenidos en cuenta ni puntuables si no se acreditan.

4. Documentación a presentar.

Solicitud y anexo cumplimentado (estará disponible tanto en la web www.oñati.eus como en el SAC del Ayuntamiento de Oñati).

De conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 39/2015 y en el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Oñati, si la persona interesada no se opone a ello, a través del nodo de interoperabilidad Nisae, consultará directamente la siguiente información para comprobar si cumplen los requisitos de acceso al puesto:

- DNI.
- Títulos oficiales exigidos.
- Perfiles lingüísticos, en su caso.
- Documento negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales.
- Certificado de vida laboral.

Por otra parte, la documentación obligatoria es la siguiente:

- Documentación acreditativa de los méritos alegados en la solicitud.
- Documentación de los cursos de formación no formal.
- Documentos de títulos propios (no oficiales).

– Euskara titulu ez ofizialen agiriak (graduarekin jasotakoak ...).

Nisae elkarreragingarritasun nodoan lanpostua eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko aukerari uko egiten bazaio, dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira 2023ko martxoaren 28tik apirilaren 5era arteko epean (epe horretan jaso ez direnak kanpo utziko dira).

Eredu ofizial hori Oñatiko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoan (HAZ bulegoan 07:30-15:30 bitartean, astelehenetik ostiralera) eta udalaren webgunean (www.oñati.eus) egongo da eskuragarri.

Era berean, merituak egiaztatzeko dokumentazioa Oñatiko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko da, ondoren zehazten diren bideetako bat erabiliz:

– Oñatiko Udaleko erregistroa (Foruen enparantza 1, 20560, Oñati). Orduetgia: 07:30-15:30.

– Oñatiko Udalaren www.oñati.eus egoitza elektronikoko erregistro elektronikoa alta bidez.

– Posta bulego batean: gutun azal ireki batean eraman behar da eskabidea postetxeko enplegatuek data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrera Oñatiko Udaleko Erregistroan.

– Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan. Meritu horiek, ondoren azaltzen den moduan egiaztatuko beharko dira:

Oharra: Haurtzarora eta adoleszentiaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeko 8. artikulua araberako sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa, Oñatiko udalak deituta burutuko diren prestakuntza-saioretako aurrenengo saiora bertaratzean aurkeztu beharko da. Data hori kontuan izanda gehienez ere 3 hilabetetako aurretiaz emandako agiriak onartuko dira. Agiri hau Bilboko Elkano kalea 9,7 kokatzen den Lurraldeko Gerentzian ateratzen da.

5. *Balioespen batzordea.*

Epaimahai kalifikatzailea Oñatiko udaleko 3 kidez osatuta egongo da:

Epaimahaiburua:

– Oskar Carrascal Gonzalez, Zubikoa kiroldegiko zuzendaria.

Bokala:

– Xabier Zabaleta Etxabe, Euskara Teknikaria.

Epaimahaiko idazkaria:

– Izaskun Querejeta Agirre, GGBB eta Antolakuntzako AOT.

Aholkularia:

– Rosa Lasagabaster Armendariz, Udak kirol teknikaria.

6. *Lehiaketa fasea.*

Ondorengo irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzeko puntuazioa aterako da eta horren arabera lortuko da kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera.

Puntuagarri den guztia egiaztatuko beharko da puntuatua izan dadin.

«Kirol zerbitzu orokorretarako»:

* Ikasketa amaitutak:

– IVEF / INEF: 6 puntu.

– Irakasle ikasketan gradua (hezkuntza fisikoko espezialitatea): 4 puntu.

– Certificados de títulos de euskera no oficiales (obtenidos con grado).

Si se rechaza la posibilidad de acreditar que cumplen los requisitos para acceder al puesto en el nodo de interoperabilidad Nisae, se deberá aportar toda la documentación.

Las solicitudes para tomar parte en el proceso selectivo se presentarán completadas en modelo oficial y normalizado durante el período comprendido entre el 28 de marzo y el 5 de abril 2023 (excluyendo aquellas que no hayan sido recogidas en dicho plazo).

Este modelo oficial estará disponible en la oficina del Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Oñati (oficina SAC de 07:30 a 15:30 horas de lunes a viernes) y en la página web municipal (www.oñati.eus).

Asimismo, la documentación acreditativa de los méritos deberá presentarse en el registro del Ayuntamiento de Oñati por alguno de los medios que a continuación se detallan:

– Registro del Ayuntamiento de Oñati (Plaza de los Fueros, 1, 20560, Oñati). Horario: 07:30-15:30.

– Mediante alta de registro electrónico en la sede electrónica del Ayuntamiento de Oñati www.oñati.eus.

– En una oficina de Correos: la solicitud se llevará en sobre abierto para que el personal de Correos señale fecha y sello dentro del plazo de presentación. Sólo así se entenderá que la solicitud ha tenido entrada en el Registro del Ayuntamiento de Oñati en la fecha en que fue depositada en la oficina de correos.

– En cualquier otra forma que establezca la normativa aplicable.

Nota: de conformidad con el artículo 8 de la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección de la infancia y la adolescencia, el documento negativo del Registro Central de Delinquentes Sexuales deberá presentarse en la primera sesión de las sesiones formativas convocadas por el Ayuntamiento de Oñati. Se admitirán documentos emitidos con una antelación máxima de 3 meses teniendo en cuenta dicha fecha. Este documento sale en la Gerencia Territorial de la calle Elcano 9,7 de Bilbao.

5. *Comisión de valoración.*

El Tribunal Calificador estará compuesto por 3 miembros del Ayuntamiento de Oñati:

Presidente:

– Oskar Carrascal González, director del polideportivo Zubikoa.

Vocal:

– Xabier Zabaleta Etxabe, Técnico de Euskera.

Secretaria del Tribunal:

– Izaskun Querejeta Agirre, TAG de RRHH y Organización.

Asesora:

– Rosa Lasagabaster Armendariz, Técnica Municipal de Deportes.

6. *Fase de concurso.*

En función de las puntuaciones que se impongan a los siguientes criterios, se obtendrá una puntuación por candidato/a, en función de la cual se obtendrá el orden de contratación.

Todo lo puntuable deberá acreditarse para que sea puntuable.

«Para servicios deportivos generales»:

* Estudios terminados:

– IVEF/INEF: 6 puntos.

– Grado en Enseñanza Magisterio (especialidad Educación Física): 4 puntos.

- TAFYD (Gorputz eta kirol ekintzak sustatzea): 2,5 puntu.
- Kirol begiralea (Federazioetako / Kirolaren Euskal Eskola-ren tituluak eskainiko diren kiroletan): 1,5 puntu.
- Kirol begiralea (Federazioetako / Kirolaren Euskal Eskola-ren tituluak eskainiko ez diren kiroletan): 1 puntu.
- Sorospidetza: 0,75 puntu.
- Ikasketak amaituta izan ezean, gainditutako ikasturte bakoizari bere balio proportzionala emango zaio.
- * Prestakuntza-ikastaroak:
 - Ekintza fisiko eta kirolarekin lotutako ikastaroak: 0,01 puntu orduko, gehienez 3 puntu.
 - * Euskara maila:
 - C1/HE3 edo euskara mailaren baliokidea: 1 puntu.
 - C2/HE4 edo euskara mailaren baliokidea: 2 puntu.
 - * Lan-esperientzia:
 - Uda Kanpainan eskainitako kirol zerbitzuekin bat ez datozen Kirol eskoletan esperientzia izatea: 0,002 puntu/orduko. Gehienez 8 puntu.
 - Uda Kanpainan eskainitako kirol zerbitzuekin bat datozen Kirol eskoletan esperientzia izatea: 0,005 puntu/orduko. Gehienez 10 puntu.
 - Ezaugarri honetako kirol kanpainetan begirale esperientzia izatea: orduko 0,015 puntu/orduko. Gehienez 15 puntu.
 - Eskola Kirola programetan begirale esperientzia izatea: orduko, 0,010 puntu/orduko. Gehienez 15 puntu.
 - Hezkuntza fisikoko irakasle esperientzia izatea: hilabete bakoitzeko 0,25 puntu. Gehienez 15 puntu.
 - Mendiko bizikleta ekintzan kirol begirale lanetan esperientzia: 0,020 puntu / orduko, gehienez 22 puntu izan arte.
- «Kirol zerbitzu espezifikoentzako»:
 - * Ikasketa amaituta:
 - Eskalada eta patinajea.
 - IVEF / INEF: 5 puntu.
 - Irakasle ikasketan gradua (hezkuntza fisikoko espezialitatea): 3,5 puntu.
 - TAFYD (Gorputz eta kirol ekintzak sustatzea) / Talde gidaritza natur ingurunean: 3 puntu.
 - Kirol begiralea (federazioetako / Kirolaren Euskal Eskola-ren tituluak eskainiko diren kiroletan): 7 puntu.
 - Kirol begiralea (Federazioetako / Kirolaren Euskal Eskola-ren tituluak eskainiko ez diren kiroletan): 2 puntu.
- Sorospidetza: 0,75 puntu.
- Ikasketak amaituta izan ezean, gainditutako ikasturte bakoizari bere balio proportzionala emango zaio.
- * Prestakuntza-ikastaroak:
 - Ekintza fisiko eta kirolarekin lotutako ikastaroak: 0,01 puntu orduko, gehienez 3 puntu.
 - * Euskara maila:
 - C1/HE3 edo euskara mailaren baliokidea: 1 puntu.
 - C2/HE4 edo euskara mailaren baliokidea: 2 puntu.
 - * Lan-esperientzia:
 - Eskalada eta patinajea.

- TAFYD (Promoción de actividades físico-deportivas): 2,5 puntos.
- Monitor/a deportivo/a (en aquellos deportes en los que se oferten títulos de Federaciones/Escuela Vasca del Deporte): 1,5 puntos.
- Monitor/a deportivo/a (en aquellos deportes en los que no se oferten títulos de Federaciones/Escuela Vasca del Deporte): 1 punto.
- Socorrismo: 0,75 puntos.
- En caso de no tener finalizados los estudios, a cada curso superado se le asignará su valor proporcional.
- * Cursos de formación:
 - Cursos relacionados con la actividad física y deportiva: 0,01 puntos por hora, hasta un máximo de 3 puntos.
 - * Nivel de euskera:
 - Nivel C1/PL3 o equivalente de euskera: 1 punto.
 - Nivel C2/PL4 o equivalente de euskera: 2 puntos.
 - * Experiencia laboral:
 - Experiencia en Escuelas Deportivas disconformes con los servicios deportivos ofertados en la Campaña de Verano: 0,002 puntos/hora. Hasta 8 puntos.
 - Experiencia en Escuelas Deportivas coincidentes con los servicios deportivos ofertados en la Campaña de Verano: 0,005 puntos/hora. Hasta 10 puntos.
 - Experiencia como monitor/a en campañas deportivas de estas características: 0,015 puntos/hora. Hasta 15 puntos.
 - Experiencia como monitor/a en programas de Deporte Escolar: 0,010 puntos/hora. Hasta 15 puntos.
 - Experiencia docente en educación física: 0,25 puntos por mes. Hasta 15 puntos.
 - Experiencia como monitora o monitor deportivo en actividad ciclista de montaña: 0,020 puntos/hora, hasta un máximo de 22 puntos.
- «Para servicios deportivos específicos»:
 - * Finalizado el estudio:
 - Eskalada y patinaje.
 - IVEF/INEF: 5 puntos.
 - Grado en Magisterio (especialidad educación física): 3,5 puntos.
 - TAFYD (Promoción de actividades físico-deportivas)/Conducción grupal en el medio natural: 3 puntos.
 - Monitor/a deportivo/a (en aquellos deportes en los que se oferten títulos federativos de la Escuela Vasca del Deporte): 7 puntos.
 - Monitor/a deportivo/a (en aquellos deportes en los que no se oferten títulos de Federaciones/Escuela Vasca del Deporte): 2 puntos.
 - Socorrismo: 0,75 puntos.
 - En caso de no tener finalizados los estudios, a cada curso superado se le asignará su valor proporcional.
 - * Cursos de formación:
 - Cursos relacionados con la actividad física y deportiva: 0,01 puntos por hora, hasta un máximo de 3 puntos.
 - * Nivel de euskera:
 - Nivel C1/PL3 o equivalente de euskera: 1 punto.
 - Nivel C2/PL4 o equivalente de euskera: 2 puntos.
 - * Experiencia laboral:
 - Eskalada y patinaje.

Eskalada Zerbitzuan begirale lanetan esperientzia, edota formakuntza espezifikoak izatea derrigorrezkoa da. Patinajea zerbitzuaren kasuan ezinbestekoa da patin-jardueran maila ona izatea, eta esperientzia izatea jarduera honen ikas-irakas prozesuetan. Ikasketetako praktikaldiak puntuatuko dira baita ere.

– Eskaladan edo/eta patinajea kirol begirale lanetan esperientzia: 0,10 puntu /orduko, gehienez 25 puntu izan arte.

– Eskola Kirola programetan kirol begirale lanetan esperientzia: 0,010 puntu /orduko, gehienez 15 puntu izan arte.

– Kirol eskoletan begirale lanetan esperientzia: 0,015 puntu / orduko, gehienez 8 puntu.

– Hezkuntza fisikoko irakasle lanetan esperientzia: 0,25 puntu / hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte.

Oharra: Udalak eskalada eta patinaje zerbitzuen izen-gaien ezagutza maila egiaztatu ahal izango du. Gutxienezko maila egiaztatu ezean onartuen zerrendatik kanpo geldituko dira.

7. Izangaien zerrenda.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketa-fasean lortutako emaitzen batura izango da.

Berdinketa izanez gero, sexu bakoitzaren errepresentazioa ehuneko hogeita hamarrekoa gutxienez bermatzea aldera, ratio horretara iritsi artean, neska-mutil berdinketa emanez gero, presentzia gutxiena duen sexuko hautagaiak lehentasuna izango du. Behin irizpide hori aplikatu eta gero berdinketak jarraitzen badu, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

1. Egiaztatutako lan-esperientzia.
2. Titulazio akademikoan lortutako puntuaziorik handiena.
3. C2/HE4 euskara-maila izatea.

Hautaketa bukatu ondoren, Balioespen batzordeak lortutako puntuazioaren arabera zerrenda argitaratuko du Oñatiko Udaleko iragarki taulan eta web orrian. Era berean, onarpen-proposamena egingo dio eskudun organoari.

8. Lan-orduen banaketarako irizpideak.

Udalak, Uda Kanpaina 2023ko zerbitzua emateko beharrezkoak dituen monitorea kopurua kontratatuko du onartutako izangaien artean. Kontratatuko diren monitorea kopurua ezin da alde zehatzetik zehaztu, Uda Kanpainan zehar aurrera egingo duten zerbitzuetako taldeak osatu arte. Behin ekintzetan izen-ematea egin duela Udalak, eta zerbitzuetako taldeak behin-behinekoz osatuta daudela, ikusiko da kontratatzeko kirol begirale kopurua zein den.

Hautaketa bukatu ondoren, balioesten batzordeak hautagaiak lortutako puntuazioaren arabera eta hala badagokio, berdinketa hausteko ezarritako irizpideen arabera zerrenda argitaratuko du Oñatiko Udaleko iragarki taulan eta web orrian. Era berean, onarpen-proposamena egingo dio eskudun organoari.

Kontratatuko diren monitorean artean lan-orduen banaketa egiteko honako irizpideak jarraituko dira:

– Monitorea bakoitzak, txanda bakoitzean, gutxienez, 2 lan-ordu jarraian beteko ditu.

– Lan-orduak, kontratatuko diren monitorean artean modu orekatu batean banatuko dira, monitorea guztiak ordu kopuru berdintsua egitea helburua delarik.

– Lan-orduen banaketan monitoreren bati lan-ordu gehiago egokitu behar bazaizkio, puntuazioaren arabera erabakiko da.

– Zerbitzuan egon daitezkeen bajak betetzeko, Udalak, lan-ordu eta zerbitzuen antolaketa alda dezake. Bestalde, egoera berezi bat tarteko, eta larrialdi baten aurrean lanpostua betetzeko

Es imprescindible tener experiencia como monitor/a en el servicio de escalada o formación específica. En el caso del servicio de patinaje es imprescindible un buen nivel de patinaje y experiencia en los procesos de enseñanza-aprendizaje de esta actividad. También se puntuarán los períodos de prácticas de los estudios.

– Experiencia como monitor/a deportivo/a en escalada y/o patinaje: 0,10 puntos/hora, hasta un máximo de 25 puntos.

– Experiencia como monitor/a deportivo/a en programas de Deporte Escolar: 0,010 puntos/hora, hasta un máximo de 15 puntos.

– Experiencia como monitor/a en escuelas deportivas: 0,015 puntos/hora, hasta 8 puntos.

– Experiencia docente en educación física: 0,25 puntos/mes hasta un máximo de 15 puntos.

Nota: el Ayuntamiento podrá comprobar el nivel de conocimiento de los nombres de los servicios de escalada y patinaje. De no acreditarse el nivel mínimo quedarán excluidos/as de la lista de admitidos/as.

7. Lista de candidatas y candidatos.

La calificación final de cada aspirante será la suma de los resultados obtenidos en la fase de concurso.

En caso de empate, con el fin de garantizar un mínimo del treinta por ciento de representación de cada sexo, hasta alcanzar dicho ratio, en caso de empate entre chicos y chicas, el candidato o candidata del sexo menos representado tendrá preferencia. Si una vez aplicado este criterio persiste el empate, para establecer el orden se tendrán en cuenta, respectivamente, los siguientes criterios:

1. Experiencia laboral acreditada.
2. Mayor puntuación obtenida en la titulación académica.
3. Tener nivel de euskera C2/PL4.

Una vez finalizada la selección, la Comisión de Valoración publicará en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Oñati la relación por orden de puntuación obtenida. Asimismo, elevará propuesta de aprobación al órgano competente.

8. Criterios de distribución de las horas de trabajo.

El Ayuntamiento contratará el número de monitores y monitores necesarias para la prestación del servicio de Campaña de Verano 2023 entre las aspirantes admitidas. El número de monitores/as a contratar no se puede determinar de antemano hasta que se completen los equipos de servicios que avanzarán a lo largo de la Campaña de Verano. Una vez que el Ayuntamiento ha realizado la inscripción en las actividades y los equipos de servicios están formados provisionalmente, se verá el número de monitores/as deportivos a contratar.

Finalizada la elección, la Comisión de Valoraciones publicará en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Oñati la relación de aspirantes en función de la puntuación obtenida y, en su caso, de los criterios de desempate establecidos. Asimismo, elevará propuesta de aprobación al órgano competente.

La distribución de las horas de trabajo entre monitores a contratar se realizará siguiendo los siguientes criterios:

– Cada monitor/a realizará, al menos, 2 horas de trabajo continuado en cada turno.

– Las horas de trabajo se distribuirán de forma equilibrada entre monitores a contratar, con el objetivo de que todas las monitoras y monitores realicen un número de horas similar.

– En el caso de que en la distribución de las horas de trabajo haya que asignar a alguna monitora o monitor más horas de trabajo, se decidirá en función de la puntuación.

– Para cubrir las posibles bajas en el servicio, el Ayuntamiento podrá modificar la organización de las horas y servicios. Por otra parte, en el caso de que, por circunstancias especiales, se re-

beharra balego, zerrenda orokorra eta espezifikoetako izangaien artean aukeratuko dira begiraleak hurrenkeraren arabera, beti ere begiraleen formakuntza eta lan-esperientzia aintzat hartuta.

Oñati, 2023ko otsailaren 24a.—Izaro Elorza Arregui, alkatea.
(1413)

quiera la cobertura de un puesto de trabajo ante una emergencia, se elegirá por orden entre las personas aspirantes de las listas general y específica, teniendo en cuenta la formación y experiencia profesional de cada monitor/a.

Oñati, a 24 de febrero de 2023.—La alcaldesa, Izaro Elorza Arregui.
(1413)